



### **4.3. BIZIKIDETZA-PLANETARAKO ORIENTABIDEAK, ESKARMENTU HANDIKO GURE IKASTETXE BATZUEN ESPERIENTZIATIK ABIATUTA**

**2010ko uztaila**

EAEko ikastetxeetan bizikidetza-planak lantzeko eta bizikidetzarako behatokiak sortzeko berrikuntza-proiektuen deialdia (P8) amaituta, egindako ibilbidearen balorazioa egin behar da.


Zeregin horretarako, beren ibilbide eta erantzukizunagatik arlo horrekiko sentikorrak diren Berritzeguneko hainbat ikuskatzaile eta aholkularik osatutako talde batek azterketa sakon bat egin du. Bertan, beren hezkuntza-proiektuetan bizikidetza berezko hezkuntza-arlotzat duten ikastetxeek kontuan hartu beharreko elementu guztiak aztertu dituzte, arauak ezartzetik eta neurriak aplikatzetik haragoko zerbait izan dadin.

Ale guztiak jaso nahi izan ditugu, baina 13 ikastetxetara baino ez gara heldu. Izan ere, pentsatu genuen Bizikidetza Planak eta behatokiak urtez urte bizirik jarraitzea nola lortu duten ulertzeko pista batzuk eman liezazkiguketela, bai eta gakoak zein izan diren eta zer zailtasun dauden ulertzeko ere. Ziur asko, interes handiko elementuak ager zitzaketen beste ikastetxe batzuk kanpoan geratuko ziren, baina egindako lana adierazgarria eta garrantzitsua da. Lortutako txostenak modu praktiko, erreal eta egingarrian lagun diezaike ikastetxeei.

#### **1. SARRERA**

Bizikidetza gaurkotasun handiko gaia bilakatu da. Azken urteotan, ikasgeletan eta ikastetxeetan gertatzen diren arazoekin lotutako egoerak lehen baino askoz ere gehiago agertzen dira gizarte-testuinguruan eta hedabideetan. Horren ondorioz, bizikidetzaren ikuspegi partziala izatea ekarri du, batzuetan, batez ere eragin negatiboetan oinarritzen den ikuspegia, agertzen zaizkion galdera eta egoerei erantzun positiboa emateko ikastetxeek egiten duten ahaleginari erreparatzen ez diona.

Urte hauetan zehar, bizikidetzari heltzeko alderdi positiboetatik begiratu behar zaiola nabarmendu da hainbat azterketa eta ikerketetan. Jarrera horrek aukera ematen du arreta batez ere bizikidetzari ikuspegi positibotik laguntzeko estrategietan jartzeko, eta ez hainbeste, bizikidetza hausten den egoera larriei ematen zaien erantzun puntualean, nahiz eta erantzun hori ere premiazkoa izan.



Bizikidetzaren ikastea da hezkuntza-sistemaren xedeetako bat (“gizarterako eta herritartasunerako” gaitasuna eta “ekimena eta autonomia pertsonala”). Bizitarako ikasketarik erabilgarriena pertsona bakoitzak bere buruarekin eta besteekin harreman positiboa eraikitzea da, eta horixe da baloreetan heztearen ardatz nagusia (justiziarako, berdintasunerako, elkarrekiko errespeturako eta indarkeriarik gabeko jarrera izateko hezteak). Horregatik, hau da gure erronka: hezkuntza-sistemaren kalitatean aurrera egitea, bizikidetzarako, bakerako eta giza eskubide guztien errespeturako hezkuntzaren bidez.


Araudiari dagokionez, otsailaren 19ko 1/1993 Legeak, Euskal Eskola Publikoari buruzkoak jada ezartzen zuten, 17.1 artikuluan, hezkuntzarako eskubidea gauzatzen laguntzeko, euskal eskola publikoko ikastetxeek eskola-bizikidetzaren garatzea sustatu behar zutela. Geroago, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak dio, hezkuntza-proiektuari buruzko 121. artikuluan, ikastetxeek landutako bizikidetzaren plana jaso behar dela proiektu horretan. Azkenik, indarrean den abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrak buruzkoak, bizikidetzaren esparru bat arautzen du, ikasleek ikas dezaten, esparru hori baliatuta, nola gauzatu behar dituzten beren eskubideak eta betebeharrak, eta horrela, gizarteko kide osoak izateko gaitasunak eskura ditzaten.

Bizikidetzaren eremuarekin, legeen bidez arautzen diren hezkuntza-gai handi guztiekin gertatzen den gauza bera gertatzen da. Araudi-esparruak ezarritako hezkuntza-aldaketak ikastetxean gauzatzen dira. Zenbaitetan, araudi-esparruak ikastetxeetan dagoeneko sistematikoki lantzen dena arautzeko funtzioa betetzen du, baina beste batzuetan, araudi-esparru hori erreferentzia edo lortu beharreko helburua izaten da.

Eskola-errealitatea konplexua da, continuum bat. Mutur batean dauden ikastetxeek, bizikidetzaren planak lantzeaz gain, asko sakondu dute eskola-komunitateko kide guztien artean harreman positiboetan oinarritutako bizikidetzaren giroa sustatzen duten estrategietan eta prozeduretan. Beste muturrean daudenek, berriz, oraindik ez diote ekin beren bizikidetzaren plana lantzeari.

Horregatik, Hezkuntza Sailburuordetzak lan hau eman zion Hezkuntza Ikuskaritzako eta Berritzeguneetako profesionalen osatutako talde bati: arlo horretan egiaztatutako esperientzia duten ikastetxeen lagin bat hartuta (Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako zenbait ikastetxe publiko nahiz itunpeko), aztertzea eta baloratzea zer prozesu egin zuten, eta zer alderdik erraztu edo zaildu zuten jarritako helburua lortzea.

Lan horren emaitza gisa, dokumentu hau landu da, eta Hezkuntza Sailburuordetzak bizikidetzaren planik ez duten edo daukatena hobetzeko asmoa duten ikastetxe guztien esku uzten du, lanketa horretarako lagungarri izan dakien.



## • AZTERTUTAKO ALDERDIAK

### -GURE PROIEKTUEN ARRAKASTAREN ALDAGAIAK-

Aztertu ditugun alderdien artean, honako hauek daude proiektuaren arrakastarekin zuzenean lotuta:

1. Inplikaturako giza taldeak.
2. Ikastetxeak inguruarekin duen harremana.
3. Ikastetxeko giroa eta araudia.
4. Gatazkak prebenitu eta kudeatzea.
5. Egindako prestakuntza.
6. Eskola-curriculuma.

Atal bakoitzean, ikastetxeen beraien edo Berritzeguneetako ikuskaritza- eta aholkularitza-taldearen zenbait esaldi eta esapide erantsi dira, ikastetxeek azterketaren alderdi nagusiei buruz elkarriketetan adierazitakoa islatzeko.

Dokumentuaren amaieran, zenbait erreferentzia bibliografiko ematen dira, arlo horri buruzko hausnarketari ekin nahi dioten ikastetxeentzat.

## 1. INPLIKATUTAKO GIZA TALDEAK


### 1.1. GIDARITZA ETA KORDINAZIOA

Aztertutako ikastetxe guztiak nabarmentzen dute zenbaterainoko **garrantzia** duen **zuzendaritza-taldearen eta bizikidetza-proiektuaren koordinatzailearen inplikazio-mailak eta gidaritzak**, ekimena arrakastatsua izan dadin.

Gidaritza hori elkarren osagarri diren bi alderditan gauzatzen da:

- Proiektuaren garapenerako **erreferente izango den etorkizun desiragarri bat diseinatzea**: ikuspegi orokorra, helburuak eta xedeak definitzea... Maila zehatzagora etorrira, hau esan nahi du: nola bultzatu, dinamizatu, abian jarri, koordinatu, ebaluatu eta ondorioak atera, gidatu, proiektua zabaldu, bere faseei buruzko orientazioa eman, gatazkak konpontzeari buruzko prestakuntzari bide eman, dokumentuak integratu, eta abar.
- Bigarren zeregina bizikidetzaren **egunerokoa kudeatzea** da. Atal honetan, zeregin hauek sartzen dira: ikasleekin arazoak dituzten irakasleei laguntza ematea, autolaguntzarako talde bat egotea, gatazkak konpontzeko esku-hartzeko proposamenak, materialak sortzea, tutorekideak ematen duen laguntza, egindako lana bilera-akten bidez itzultzea, eta abar.

**Zuzendaritzari** dagokionez, hainbat eratan gauzatzen da haren inplikazioa:



- **Zuzeneko inplikazioa:** Behatokian edo Bizikidetzaren Batzordean parte hartzea, zuzenean hura koordinatzeko edo dinamizatzeko lanak eginez, egunerokoa sortzen diren zalantzak erabakitzen lagunduz, zailtasunen aurrean irakasleei lagunduz...
- Beste batzuetan, **jarrera harbera** izatea eskatzen da, dauden proposamenak babestea eta laguntzea, eta bizikidetzaren sarea eraikitzeke behar den oreka izaten saiatzea.
- **Antolaketarekin** zerikusia duen inplikazioa: ordutegiak, baliabideak eta abar antolatzea, bizikidetzaren behar bezala gauza dadin. Ikastetxeek diote jarduketa horiek gabe ezinezkoa izango litzatekeela bizikidetzaren proiektuari eustea.

**Proiektuaren koordinatzaileari** dagokionez, **zuzendaritza-taldearekin lankidetzaren estuan** aritu behar duela nabarmentzen da. Izan ere, zenbaitetan, zuzendaritza-taldeko kide batek hartu du bere gain zeregin hori.

Koordinatzaile-lana nork hartzen duen alde batera utzita (zuzendaritza-taldeko kide batek, orientatzaileak, aholkulari batek edo irakasle batek), ikastetxeak bat datoz pertsona horrek izan beharreko profilari dagokionez:

- **Ikastetxea ondo ezagutu** behar du.
- “Irizpideko pertsonak” izatea **klaustroaren baitan, klaustroak onartuak**, eta **klaustroaren babesa dutela sentitzea**.

Proiektuaren lehen urtean koordinazio-lanak bere biziko garrantzia duela uste dute ikastetxe guztietan. Zenbait ikastetxetan, koordinazio horrek jarraitu egiten du hurrengo urteetan, baina beste batzuetan, koordinatzailearen zeregina ikastetxearen antolaketaren orokorraren baitan diluitzen da. Hala ere, bizikidetzaren garatzeko eta inplementatzeko zereginen oinarriko erreferentzia izaten jarraitu ohi du.

### Zer diote ikastetxeek?

“Hasieran, zuzendaritza izan zen proiektuaren bultzatzailea, eta gero, proiektuaren koordinatzailearen figura sortu zen, eta hark hartu zuen proiektuaren dinamizatu eta koordinatzeko ardura nagusia, zuzendaritza-taldearekin lankidetzaren estuan.”

“Hasieratik, inplikazio argia bezain handia izan zuen zuzendaritza-taldeak. Inplikazio horrek iraun egin du, zuzendaritza-taldea aldatu denean. Bestela, ezinezkoa izango litzateke bizikidetzaren kudeaketaren inguruan hainbeste jarduketa egiten jarraitzea. Jarduketa horiek gauzatzeko, gidaritza argia behar da, eta ikastetxe osoaren gaitzat hartzea, eta ez jotzea pertsona gutxi batzuen kontutzat. Eta alderdi guztietatik begiratuta da garrantzi handikoa: antolaketarako, erabakiak hartzeko, gidaritzarako, familiekiko harremanerako...”



*“Pertsonak aldatu diren arren, ez da norabide-aldaketarik egon. Jarraipena izan du. Gidaritza oso partekatua dago: zuzendaritza-taldea antolaketa-alderdiez arduratzen da; irakasleen gidaritza, berriz, planaren arduradunak du, nahiz eta hark guztien artean banatzen dutela dioen. Garrantzi handikoa da arduradun horrek zuzendaritza-taldearekin oso harreman estua izatea.”*

## 1.2. ANTOLAKETA-EGITURA

Aztertutako ikastetxe guztiek beste alderdi bat ere errepikatzen dute: bizikidetzan lan egiteko oinarri egokia izango den antolaketa-egitura sortu behar da. *Bizikidetzataldeak* proiektuaren lehen urtean pisu handia badu ere, joera dago **langileen koordinaziorako ohiko egiturak** erabiltzeko, baterako lanari ekiteko eta garatzeko: zikloko edo batzordeko bilerak, pedagogia-batzordearenak barne, koordinazio-bilerak, prestakuntza-bilerak...

Lehen urtea igarota, bizikidetzan lan egitea ikastetxearen ohiko antolaketa-egituran txertatuz joan da, eta horrek aukera ematen du proiektuak baldintza egokiagoetan egin dezan aurrera.


Egitura eta sare horrek **koordinatzailea** eta hark egiten duen lana babesteko edo **laguntzeko** aukera ematen du.

### Zer diote ikastetxeek?

*“Badira bizikidetzari laguntzen dioten antolaketa-erabakiak ere: mailakatuta irtetea, espazioak eta eskailerak banatzea, indartze-planak eta aniztasunari erantzuteko planak urtero berrikustea...”*

*“... garrantzitsuena Bizikidetzaren Batzordearena da; astelehenero elkartzeko da, bi orduz. Ezinbestekotzat jotzen dute denbora jakin batzuk markatzea, batzorde honen eraginkortasuna bermatzeko. Batzorde hori zutabetzat jotzen dute, bizikidetzan lan egitea diseinatzeko, abian jartzeko eta ebaluatzeko.”*

*“Aholkulariaren, zuzendaritza-taldearen eta haien lankideen arteko koordinazioa hobetu egin da azken etapa honetan, eta ohartu gara ezin duela bakoitzak bere aldetik eraiki, baizik eta denok egiten dugula geure ekarpena, eta horretarako egiten dugula lan taldean.”*



“Ikastetxeko irakasleek inplikazio handia izan dute, eta horrek hainbat erabaki hartzea ahalbidetu du: antolaketari dagozkionak (koordinazio-ordutegia), metodologiari dagozkionak (proiektu berriak), tutoretzan zenbait gai lantzeko moduz eta familiekin egin daitezkeen lankidetzaz, jantokiko monitoreei buruz, eta abar.”

### Bizikidetzaren behatokia

**Bizikidetzaren positiboari bultzada emateko eta garatzeko** proiektuan, hainbat ikastetxe hartu dute parte, esan bezala, eta proiektu horrek egiturazko elementu berritzaile bat izan du: Bizikidetzaren Behatokia (BBE). Ikastetxe guztietan sortu zen BBE: salbuespena ikastetxe bakar bat izan zen, eta hark 2. ikasturtearen hasieran sortu zuen; gainerakoek proiektuaren garapenerako lehen urtean zehar sortu zuten. Ikastetxe bakar batean adierazi dute sortu bai, sortu zutela BBE, baina ez zutela asmatu hari funtzio argiak ematen.

BBE-ren osakerari dagokionez, **BBE-ren muina irakasleek, familiek eta ikasleek osatzen dute**, laginako ia ikastetxe guztietan. Ikastetxeko zuzendaritza esplizituki aipatzen da, ia kasu guztietan, bai zuzenean edo bai *irakasleak* epigrafearen barruan. Hauek dira BBE-ren beste partaide batzuk, ez hain jendetsuak: jantokiko zaintzaileak, administrazio eta zerbitzu-tako langileak (AZL), udal-ordezkariek, gizarte-langileak, ijito-elkartek...

Hauek dira erakunde horri ematen zaizkion **funtzio garrantzitsuenak**:

- Sektore guztien partaidetza sustatzea eta Urteko Bizikidetzaren Plana bultzatzea: estamentu guztien ekarpenak, premiak eta abar jaso eta bideratzea.
- Bizikidetzaren positiboko ekintzak sustatzea sektore guztietan: kanpainak, gatazka konpontzeko lantegiak, elkar zaintzeko kultura bultzatzea...
- Ikastetxeko bizikidetzaren araudia berrikusi eta eguneratzea: eskubide eta betebeharrak buruzko Dekretua aztertu, antolakuntza- eta jardueraren araudia (AJA) eguneratu...
- Zenbait egoera eta gatazketarako jardueraren protokoloak proposatzea.

### Balorazioa

Ikastetxeek BBE-ri buruz egiten duten balorazioan, **argiak eta itzalak** ageri dira: batetik, **oso positiboki baloratu da** honetarako duen ahalmena: ikasleei eta familiei ikastetxeko bizitzan benetan parte hartzeko bideak irekitzeko, dauden sentikortasunak biltzeko eta bistaratzeko, irakasleen eta gurasoen arteko errezeloak gainditzeko, ikastetxeko parte izateko sentipena garatzeko... Bestetik, **egiazatu da zaila dela** bizirik mantentzea, bere funtzioak errealak izatea, ikastetxearen funtzionamendu-egitura txertatzea, eta sektore guztien parte-hartzeari eustea.

Horrez gain, **Bizikidetzaren Batzordearen (BBA) egoera berriaz** ere hitz egin dute. Denborak aurrera egin ahala, BBA-en funtzioa “diziplina kudeatzera” mugatu zen, eta izaera nagusiki zigortzailea hartu zuen. BBA-ren ekarpen nagusia hau izan da: parte hartzeko, hausnartzeko eta bizikidetzaren positiboko jarduerak bultzatzeko gune bat sortzea, egunerokoaren kudeaketaren hipotekatik at. Gaur egun, eskubideei eta




betebeharrei buruzko Dekretu berriaren ondorioz, BBa-ren funtzio gehienak ikastetxean zuzendaritzen esku geratu dira eta, beraz, jada ez dute lehengo eduki zigortzailea, batzordearen ezaugarri nagusi bilakatu zena.

Egoera horren ondorioz, **bi lantaldeak berrantolatu behar dira. Badirudi lantalde bakar bat sortzea izan daitekeela jarrerarik integratzaileena, eta izena edozein izanik ere (BBe edo BBa), funtzio hauek guztiak izango lituzkeena BBe-rentzat atal honetan azaldutako funtzioak eta ikasleen eskubideen eta betebeharren Dekretuaren 5. artikuluan<sup>1</sup> azaldutakoak, bai eta ikastetxeei proposatutako AJA-ereduaren 10. artikuluan<sup>2</sup> BBa-rentzat deskribatutakoak ere.**

---

<sup>1</sup> Aipatutako 2. artikulua honela dio hitzez hitz: “Bizikidetzaren plan horiek berdinen artean, generoen artean eta kulturen artean bizikidetzarako funtsezko oinarritzat hartuko du norberaren eskubideak baliatzea eta besteen eskubideak errespetatzea, baita irakasleen, ikasleen eta irakasleak ez diren langileen arteko harremanetan ere. Bizikidetzaren planean jaso behar dira gatazkak modu baketsuan konpontzera bideratutako prozedurak eta adiskidetzaren nahiz ordaina edo zuzenketa lortzera bideratutakoak, bai eta bizikidetzarako hezkuntza-konpromisoak hartzeko ildoak eta ikastetxean bizikidetzaren behatoki bat antolatzeko hartu beharreko neurriak ere.”

<sup>2</sup> “Bizikidetzaren Batzordeak osaera bera izango du eta, haren moduan, boto haztatuaren sistema erabiliko. Bizikidetzaren Batzordeak bi funtzio nagusi izango ditu. Batetik, ikastetxean bizikidetzarako giro egokia egon dadin zaintzea. Bestetik, bizikidetzaren aurkakoak diren eta bizikidetzarentzat larriki kaltegarriak izan daitezkeen jokabideak zuzentzeko neurriak ezagutzea, aplikatzea eta berrikustea.



### Zer diote ikastetxeek?

*“Hasieran ez zen erraza izan behatokia ikastetxearen dinamikan txertatzea. Diziplina-batzordea erabat diziplinara mugatzen zen azkenerako, eta oso ahulduta zegoen. Diziplina-batzordea behatokiarekin ordezkatzeko proposatu zen, baina ez da gauzatu; izan ere, gatazkak kudeatzeko funtzio horiek zuzendaritza-taldearen eta iraukorraren esku geratu dira. “*

*“...Bizikidetzaren Batzordea diziplina-batzorde bilakatu zen eta instrukzio-prozedurak abiarazten zituen, eta jada ez du zentzu handirik; izan ere, dekretuak ikastetxeko zuzendaritzaren esku utzi du diziplinaren arloa, eta zuzendaritzak beti emango die informazioa klaustroari eta OOGri.*

*Behatokiak ez du bizikidetzaren batzordea ordezkatu, eta ez zen horretarako jaiotzen; izan ere, bere funtzioa atzematea eta prebentzio-lanak egitea zen, hobetzeko zer egin asmatzea... eta ez diziplina-arazoei erantzutea”.*

*“Behatokia ikastetxean zailtasunak edo gatazkak gainditzen laguntzen duen elementutzat jotzen da, eta horretarako, bizikidetzarekiko dauden sentikortasun guztiak biltzen ditu.”*

*“...Behatokia ikastetxeko dinamikan eta funtzionamenduan txertatzeko prozesua geldoa da.”*


*“Behatokiak misio jakin bat, lan zehatza bat, izatea da arazo nagusia. Gero, beti agertzen dira alboko gaiak, baina ezinbestekoa da beti zeregin zehatzetatik abiatzea.”*

*“Behatokia erdi hilda dago; ez zen dinamikoa; informazioa eman besterik ez zuen egiten, ez zegoen ez eztabaidarik ez ekarpenik... ez zen eraginkortzat jotzen.”*

### 1.3. IRAKASLEAK

***Irakasle guztiak inplikatzeko premia eztabaida ezinezko kontua da;*** bestela, proiektu hau hutsa, hauskorra eta edukirik gabea izango litzateke. Irakasleen inplikazio-maila handia izateak bermatzen du proiektuaren jarraikortasuna eta sakontasuna. Inplikazio horretarako, ***taldeko erantzukizuna behar da, norbanakoaren erantzukizunarekin batera.*** Ikastetxeek nabarmendu dute guztien artean eraikitzen dela bizikidetzaren garapenerako behar den sarea. Hala ere, taldeko erantzukizun hori norbanakoaren erantzukizunak osatzen duela diote.






Era batera edo bestera, **koordinazio-lanarentzat lagungarri izan daitekeen irakasle-talde bat dagoela** diote ikastetxeek, ikastetxearen barruan proiektuaren ardatza ere badena. Hurbileko taldea da, bizikidetzan lan egiteko prest dago, koordinatzailearekin eta zuzendaritza-taldearekin berarekin lankidetzan aritzen da, eta proiektua bultzatzen lan aparta egin dezake. Pertsona-talde hori sentikorra da bizikidetzarekiko, eta badaki onuragarria dela bere garapen pertsonal eta profesionalerako.

Hauek dira inplikazio hori lortzeko estrategiarik arrakastatsuenak:

- **Kultura, hizkuntza eta lan-ohitura komunak eskuratzea:** irakasle-taldearen barneko introspektio- eta hausnarketa-lana baliagarria da irakasleen artean kohesioa sendotzeko, elkarri laguntzeko kultura sendoa sortzeko, eta barne harremanak onak izateko, zenbait arlo jakinetako prestakuntzarekin batera, hala nola hezkuntza emozionala, gatazken konponketa...
- **Inplikaturako guztiek** dute ekarpenak egiten dituztenean **entzuten zaiela eta baloratzen dituztela sentitzeko** premia; horregatik, ekarpenak eskatzen zaizkie uneoro.
- **Aldaketa lasaiak eta pausatua**, erritmoa irakasle guztiei egokitzuz. Horretarako, batzuetan gelditu, itxaron eta erritmoa moteldu beharra dago, denok batera joateko.
- **Erabakiak** zabaldu, **guztiak ezagut ditzaten** eta, horrez gain, **erabakitakoa bete dadin** ziurtatzen saiatzeko.
- Inplikaturako irakasle **bakoitzak erantzukizunak onartzea**.
- Ikastetxera datozen **langile berriak** lehen egunetik **integratu** behar dira. Horretarako, zenbait ekintza proposatzen dira, aukeran:
  - Eskarmentu gehien duten irakasleen laguntza: irakasle batek irakasle berriaren gidari- eta laguntzaile-lanak egin ditzake (maila bereko irakaslea izan daiteke).
  - Proiektuaren alderdi aipagarrienei buruzko dokumentua eman eta aurkeztu.
  - Irakasle berrientzat tutoretzak hautatzerakoan, tutoretzarik konplexuenak eskarmentu gehien duten irakasleen artean banatzen dituzte.

Ikastetxe guztiak harro agertu dira lortu dutenarekin, eta onartzen dute irakasleengandik lortutako inplikazio-mailari esker bermatuta dutela bizikidetzaren proiektuarekin jarraitzea eta sakontzea.

Hala ere, inplikazio hori deskribatzerakoan era askotako egoerak agertzen dituzte, eta oraindik ere bide luzea ikusten dute aurrean.



## Zer diote ikastetxeek?

*“Gauzak ondo egin nahi izatearen oinarri hori badago, baina erabateko parte-hartzea eta arrakasta lortzea oso zaila da.”*

*“Irakasleek zikloko bileren bidez parte hartzen dute nagusiki. Batzordeez osatutako egitura batetik (agenda 21, bizikidetzaren...) ohiko egituretan lantzerantz igaro dira (zikloaren koordinazioa eta pedagogia-batzordea). Horrek asko errazten du informazioaren jarria eta guztien inplikazioa. Eraginkorragoa da.”*


*“Irakasleek elkarri laguntzen diote. Adibidez, irakasle berriari harrera egiten zaio. Beste irakasle bat jartzen zaio laguntzeko eta gidatzeko. Tutorietza partekatua ere badaude. Inoiz ez da uzten bakarrik zezenezaren aurrean.”*

*“Proiektuaren gidaritza laguntzaile-talde batekin partekatzen da. Horrelako talde bat izatea eskatzen zen deialdian, eta Bizikidetzaren Batzordea osatzen duten pertsonen funtzio hori betetzen dute. Proiektuan fedea zuten pertsonen bazuten interesa, eta zikloetara joaten zirenean zuzendaritzak eta koordinatzaileek proposatutakoa transmititzen zuten. Zikoetatik egindako lan guztia eta ikasleek egindakoa itzuli egiten zen. Funtsezkoa da proiektuan fedea duten pertsonen lan partekatu hori, eta pertsonen artean harreman ona egotea.”*

*“Oro har, irakasleek badute interesa, inplikatu egiten dira eta parte hartzen dute, nahiz eta gorabeherak izan diren hasieratik hona. Edonola ere, ikastetxean ikuspegi horretatik antolatzeko eta funtzionatzeko modua barneratu egin dela nabarmendu dute, nahiz eta zenbaitetan protagonismoa kentzen zaion horri, eguneroko jardueraren eraginez eta jardueraren horren berehalako eskakizunak direla eta. Alderdi hori bultzatzen eta lantzen jarraitu behar dela diote eta, batez ere, koordinaziorako, bateratze-lanerako eta ebaluaziorako zenbait tarte izatea bermatu behar dela. Bizikidetzaren plana eguneroko zereginari koherentzia eta zentzua ematen dion helburu komuna da haientzat.”*

### 1.4. IKASLEAK ETA FAMILIAK

Ikasleek asko balioesten dute ikasleak eta familiak inplikatzeko bai bizikidetzan bai ikastetxeko barne-dinamikan. Estamentuen artean komunikazio arina egotea eta batez ere familiek eta ikasleek parte hartzea ezinbestekoa da bizikidetzaren proiekturako.



Bizikidetzan lan egiteak **komunikazio-bide berriak** abiarazi ditu, eta horrek kultura berri bat ekarri du ikastetxera, honetarako aukera ematen duena:

- Familien eta ikasleen iritzia kontuan hartzea.
- Erabakiak adostutako prozesuen bidez har daitezen laguntzea.


**Familiei** dagokienez, **goburu-organoetan parte-hartzeaz** gain, ikastetxeek **parte hartzeko beste bide batzuk** jarri dituzte, familien ordutegietara egokituak. Hauek dira:

- Gelako arduradunak, tutorearekin batera lan egiteko
- Berriazko prestakuntza
- Familien hezkuntza-gaiei buruz beren artean eztabaidatzeko lantegiak
- Ikastetxeko ohiko jardueretan laguntzea: igerilekua, txangoak, ospakizunak, harrerak...

**Ikasleei** dagokienez, **parte hartzeko hiru bide** azpimarratzen dituzte, beste hainbeste kudeaketa-eremutan (araudiaren kudeaketa, ikastetxerako hobekuntza-proposamenak eta sortutako arazoak aztertzea eta konponbiderako proposamenak egitea):

- **Tutoretzako** lana (gero aztertuko dugu)
- **Ikasle bitartekaria, ikasle laguntzaileak, ikasle tutorea edo bestelakoak** (ikasle txikiagoei laguntzen dien ikaslea) lagineko bigarren hezkuntzako ia ikastetxe guztietan ari dira funtzionatzen, bai eta lehen hezkuntzako zenbaitetan ere.
- **Parte-hartze instituzionala**. Hainbat formatan gauzatzen da, ikastetxearen arabera, eta elementu garrantzitsutzat jotzen da, plan hauen beste zutabeetako bat baita:
  - Gelako ordezkarien bidez.
  - Ordezkarien Batzordea. Sarritan, OOGan ikasleen ordezkari gisa parte hartzearekin lotuta dago.
  - Ikasleen mailakako Bizikidetzaren Batzorde bat, aldian-aldian biltzen dena eta bizikidetzaren gaiak lantzen dituena; edo bizikidetzari buruzko aldizkako bilerak, ikasgela bakoitzeko ordezkari batek eta planaren koordinatzaileak parte hartzen dutena.
  - Ikasleen batzarra. Ikasle guztiek hartzen dute parte, eta goiko mailako ikasleek zuzentzen dute, tutoreek lagunduta.

Familien eta ikasleen inplikazioari eta parte-hartzeari buruz, ikasleen inplikazioari buruz esaten zuten bezalaxe, asko aurreratu dutela nabarmentzen dute ikastetxeek, baina berriz ere diote oraindik bide luzea dutela egiteko.



Ikastetxeak bat etorri dira esatean garrantzitsua dela parte hartzeko eredu berriak bilatzea, parte hartzearen zentzuarengatik eta duen balioagatik, proiektua arrakastatsua izan dadin.

### Zer diote ikastetxeek?

*“Bizikidetzan lan egitearen oinarria honetan datza: hitz egin, elkarrizketan aritu, koordinatu, ikasleei entzun... taldeko eraikuntza horretan, oinarri komuna eraiki. Hortxe hartzen du proiektuak indarra. Elkarrekiko errespetuak lotura estua du elkarri entzutearekin, elkarrekin koordinatzearekin eta batera erabakitze gaitasunarekin. Guztien artean elkarrekiko errespetuzko harremanak ugaritu egin direla ikusi dugu.”*

*“Ikasleen batzarra: lehen hezkuntzako ikasle guztiek hartzen dute parte. Batzarra tutoretza-saioetan prestatzen da. Hirugarren zikloko ikasleek tutoreen laguntzarekin batzarrak zuzendu eta modera ditzaten saiatzen gara. Batzar horietan, ikastetxeko jarduerak ebaluatzen dira, ekimenak proposatzen dira...”*

*“Aldi guztian zehar hartutako erabakiek ikastetxeko eguneroko jarduerari eragin diote, eta jarduera hori aldatu dute, eta inoiz ez da gauzatu aldaketa, familiarekin adostu gabe.”*

*“Familiarekin: ordutegiak adosteko ahalegina egiten da. Ikastetxera etortzeko egiten duten ahalegina aitortzen zaie. Lan-ordutegia dela-eta, bilerak arratsaldean izan daitezten saiatzen gara, ikasleak ikasgelan dauden bitartean.”*

*“Erabaki garrantzitsuak familiei galdetuta hartzen dira, eta adostasun-maila handia da; erraza da adostasunera iristea, OOGren bidez. Ez dago borrokan aritzearen sententziorik. Interes-gatazka sortzen denean, adostasuna lortzeko egiten da lan.”*

### 1.5. ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK (AZL) ETA JANTOKIETAKO LANGILEAK

Gehienetan, jantokiko langileen parte-hartzea Bizikidetza Behatokia mugatzen da, baina zenbait ikastetxetan, **komunikaziorako eta elkarrekin lan egiteko sistema** bat eratu dute, gertakariak inplikaturik dauden ikasleen tutoreei jakinarazteko. Ikastetxe horiek berek aipatzen dute zaila dela langile



horiei bizikidetzaren kudeaketan parte harraraztea; izan ere, ikastetxean duten lan-ordutegia oso murrizta da, eta zeregin horiek ordutegitik kanpo egin beharko lituzkete ezinbestean.

Ikastetxe batek adierazi du jantokiko langileek parte hartu dutela bizikidetzari buruzko berriazko prestakuntzan.

Jantokiko ordua eta bazkaldu ondorengo jolas-ordua, tentsio-unetzat eta une gatazkatsutzat jo ohi dira ikastetxeetan. Horregatik, eta jantokiko langileek Bizikidetzaren Behatokiaren izandako esku-hartzearen ondorioz, ikastetxe batzuk antolaketa-formula berriak probatzen saiatu dira, jantokiko jarduera hobetzeko:

- Zenbait bazkari-txanda egiten dira, pilaketarik egon ez dadin.
- Lantegiak. Ikasleei zuzendutako lantegi-saioak egiten dituzte, gurasoek edo monitoreek girotuta.
- Jolastokiko jolasak. Lantalde bakoitza ikasturte guztietako ikasleaz osatuta dago. Nagusienek dute jolasa azaltzeko, antolatzeko eta zuzentzeko ardura.

### Zer diote ikastetxeek?

*Proiektuaren koordinatzaileak jantokiko monitoreei laguntzeko estrategia esplizitu bat izan du, eta horretarako, irakasle guztiek entzun behar izan dute haurren baten portaerari buruz monitoreek emandako informazioa. Une honetan, edozein arazoren aurrean monitoreek tutoreengana jotzen dute, eta hauek Behatokiaren laguntza dute: gatazka bat dagoenean, ohar bat bidaltzen die familiei.”*


## 2. IKASTETXEAK INGURUNEAREKIN DITUEN HARREMANAK

Alderdi hori garrantzitsutzat jotzen da, bizikidetzari dagokionez aurrera egiten den neurrian. Udalekin harreman garrantzitsuak dituztela azaldu dute. Alderdi hauek nabarmendu dituzte:

- Behatokian eta OOGn parte hartzea
- Ikastetxearen eta guraso-eskolaren prestakuntza finantzatzen dute
- Gizarte-zerbitzuekin lankidetzat

Zenbait ikastetxek GKEekin eta boluntarioekin harremanak dituztela azaldu dute, eta horien parte-hartzeak proiektua asko aberastu duela adierazi dute.

## 3. IKASTETXEKO GIROA ETA ARAUDIA



### 3.1. GIROAREN PERTZEPZIOA

Bizikidetza-giroak **nabarmen hobetu duela** da ikastetxe guztien pertzepzio orokorra.

Giroa hobetzea proiektu honetan egindako lanaren emaitza da, zabaldu egin baita eta ikastetxeko ohiko jarduerak zipriztindu baititu. Ikastetxeek berek horrela identifikatu dute: prestakuntza bateratua, erantzukizunak partekatzea, atak irekitzea, lasaitasun handiagoa, harrera, aintzat hartua izatearen sentimendua, ikastetxean konfiantza, gustura joatea, ongi tratatzen zaituztela sentitzea, ikastetxe irekia...

#### **Giro horren emaitzak:**

- Gatazka-kopurua murriztea eta haiei aurre egiteko modua aldatzea.
- Kanporatutako ikasleen kopurua gutxitzea.
- Gatazkei aurre egiten eta haien aurrean ados jartzen ematen den denbora murriztea, guztiek hasieratik duten oinarri komunari esker.
- Segurtasun eta lasaitasun handiagoa sentitzea.
- Partaidetza-sentimendua garatzea.

Bizikidetza Planaren bidez garatzen den faktore bat harremanen **berotasuna** da.

Ikastetxeek **ikasleekiko harremanetan jartzen den arreta** berezia nabarmendu dute, eta **irakasleek prestutasun eta hurbiltasun** handiagoa izatearekin lotzen dute.


Horrez gain, zenbait ikastetxek oso positibotzat jotzen dute **irakasleen arteko giroa**, eta **barne-harremanak zaintzearekin eta elkarrekiko konfiantza izatearekin** lotzen dute.

#### **Zer diote ikastetxeek?**

*“Laguntzeko aukera ematen duen giro horrek badu zerikusirik bizikidetzarekin. Hau da jarrera: entzutea, hitz egitea, nola gauden galdetzea, garrantzitsuena ikasleei laguntzea dela argi izatea, haiek aurrera ateratzeko gaudela hemen.”*

*“Asko hobetu da guztion arteko harremana, bai irakasleen artean, bai haien eta familien artean. Kasu jakin batzuk alde batera utzita, giroa lasaia da, ez dago tirabirarik.”*

*“Giroa eta eskolako kultura erabat aldatu egin dela azaltzen dute batera. M.k dio irakasleak zaindu eta mimatu egin behar direla.”*



### 3.2. IKASTETXEKO ARAUTEGIA. ESKUBIDEEN ETA BETEBEHARREN DEKRETU BERRIRA EGOKITZEA. AJA-N TXERTATZEA.

Zenbait **ezaugarri** azpimarratzen dira ikastetxearen arautegian:

- Araua, taldeko portaera erregulatzeko tresna.
- Araua prebentzio gisa, zigorrerako baino gehiago.
- Araudia adostasunaren bidetik lantzea.
- Araudiaren inguruan sistematikoki lan egitea, ezagutu dadin bermatzeko.

Ikastetxeek AJA nahitaez landu beharra baliatzen dute, bertan bizikidetzari buruzko alderdiak txertatzeko. Dokumentu horretan txertatu beharreko zenbait alderdi hauek izan daitezkeela diote:

- Portaera egokiak eta desegokiak, eta arauak ez betetzeak dakartzan ondorioak.
- Ikastetxeko arauak eta ekintza zuzentzaileak.
- Ikasgelako arauak, jantokikoak, ikastetxekoak eta ekintza zuzentzaileak.
- Ikasgelako kontratuak.
- Agendetako oharrak arautzea.


## 4. GATAZKEI AURRE HARTZEA ETA HORIEK KUDEATZEA

Batetik araudiaren antolaketan eta kudeaketan eta bestetik gatazkei aurre hartzeko eta horiek kudeatzeko moduan erakusten dute ikastetxeek argien beren profila. Izan ere, horiek kanpoko adierazleak dira, eta nabarmen agertzen dute zer lan egin den.

Ikastetxeek bizikidetzan garatu duten araudia eta, horrekin batera, gatazkei aurre hartzea eta horiek kudeatzea, bizikidetzarako oinarri-oinarrizko kontuak bilakatu dira, lagineko ikastetxeentzat; ondo merezita, gainera.

Zergatik? **Bizikidetzaren balio positibotzat** jotzen da; hau da, ikastetxeak gero eta gehiago hurbiltzen dira eredu berri batera, eta eredu berri horretan bizikidetzarik ezak dakartzan ondorioei erreparatu ordez (berdinen arteko erasoak, disrupzioa, irakasleekiko gatazkak, bandalismoa, absentismoa...), bizikidetzari haren alderdi positiboak nabarmenduz heltzen zaio. Bizikidetzaren ulertzeko modu hori hainbat azterketa eta ikerketak balioetsi eta bultzatu dute, eta berretsi egiten dute gure ikastetxeek adierazitakoa.

Gehienetan, **ikastetxeko aukera** gisa deskribatzen da **gatazka: oharrazteko** modu bat, agertu den **arazoan sakontzeko** aukera, edo beti **hezkuntza-neurri zuzentzaileak** erabiltzeko aukera.



Gatazken kudeaketa zuzenean lotuta dago ikastetxeetan **prebentziorako** lantzen diren **jarrerekin** eta egiten diren **jarduerekin**. Bi **neurri-mota** bereizten dira, **gatazkei aurre hartzeko eta aurre egiteko**:


a) **Neurri orokorrak** araudiari eta eskola-giroari buruz aurreko atalean azaldutako alderdiekin lotuta daude, eta zuzenean eragiten dute bertan:

- Garrantzi handia ematen zaio irakasleak, familiak eta zerbitzuko langileak prebentzioaren eta ikasleen arreta jarraituaren inguruan prestatzeari.
- Arazoak sortzen direnean, arazo horiek unean bertan irakasleek kudeatzea sustatzen da. Gatazkei sortzen diren tokian bertan aurre egiten saiatzen dira, zuzendaritzara bideratu gabe, *euste-hormen teoriari* jarraituz edo antzeko neurriak aplikatuz. Neurri horiek bitarteko pausotzat jotzen dira, ikasleak beraiek izan daitezten beren arazoak konpontzen dituztenak.
- Prebentziorako tresna gisa, hauek nabarmendu dituzte: ikasle laguntzaileak, bitartekaritza, aktiboki entzutea, elkarrizketa, araudiaren aplikazio positiboa...
- Bai ikasleak bai familiak inplikatzeko dira portaera-aldaketan.

b) Aurreko guztiaz gain, badira ikastetxeek gatazkek konpontzearekin lotzen dituzten **zenbait neurri zehatz**:

- Araudia lantzeko eta ikastetxe guztian aplikatzeko egindako lana eta lortu den adostasuna faktore erabakigarria izan da. Hainbat modu eta intentsitate-mailatan landu da araudia, ikasleekin eta familiekin.
- Arauetan argitasuna eta koherentzia areagotzeko egiten da lan, bai eta gatazka sor dezaketeko egoerak zaintzeko ere (jolastokiak, gela-aldaketa, zerbitzuak...).
- Hainbat material zehaztu dira, horrekin lotuta:
  - gatazkei aurre egiteko protokoloak edo prozedurak;
  - hainbat material praktikoa erabiltzen dira gatazkek kudeatzeko eta haiei aurre hartzeko: berdinen arteko erasoaren aurrean nola jokatu jakiteko ikasleentzako materialak;
  - ikasleek berdinen arteko erasoaren aurrean nola jokatu jakin dezaten egindako materialak;
  - familiekin etxean lantzeko materialak, portaerak bideratu edo zuzentzeko...
- Gatazken aurreko berehalako jarduketak. Ikasleen arteko gatazkei bizkor egiten zaie aurre, eta ez dago oztoporik horretan ematen den denborari dagokionez...
- Bizikidetzaren aurka egiten diren jarduketan *ondorio logikoak* aplikatzen dira, eta egindako hutsuneak zuzentzeko egiten diren ekintzek





hezkuntza-izaera dute (komunitateari zerbitzua emateko neurriak, ikastetxera ohikoak ez diren orduetan joatea eta abar erabiltzen dira).

### **Gatazkei positiboki aurre egitearen emaitzak**

Oro har gatazkak gutxitu egin direla dioten arren (eta hori “lasaiago bizitzearekin” lotzen dute), ez dira ikastetxe guztietan murriztu. Hala ere, ikastetxe guztiek adierazi dute hobetu egin dela gatazkei aurre egiteko modua. Hauek dira emaitzarik aipagarrienak, ikastetxeen ustez:

- Aurrerapen nabarmena gatazken kudeaketan: erantzun hobe eta eraginkorragoa.
- Gatazkei aurre egiteko tresna hobeak.
- Koherentzia eta irizpide-batasun handiagoa irakasleen artean, bai eta beste estamentu batzuekiko ere.
- Familiak gehiago onartzen dituzte ikastetxeen jarduketak; izan ere, badute konfiantza, konponbideen bila ahalik eta erantzunik onena ematea dela helburua.

### **Zer diote ikastetxeek?**

*“Araudiari dagokionez: beti izan da gai garrantzitsua ikastetxearentzat. Orain arte ere asko landu da, eta lantzen jarraituko da, guztiok eskertzen baitugu. Arauek lagundu egiten digute jakiten zer daukagun jokoan. Hezkuntza-komunitateak badu arauaren berri. Ikasleekin eta familiarekin egiten da lan. Lan asko eginda gai horrekin lotuta.”*

*“Hobekuntza nabarmena nabaritu da gatazkak kudeatzeko moduan: erantzun hobe eta eraginkorragoa, gatazkei aurre egiteko tresna hobeak, koherentzia eta irizpide-batasun handiagoa irakasle guztien artean, familiak hobeto ulertzen dituzte ikastetxeko jarduketak, fio dira ikastetxeaz eta badute konfiantza konponbideak jartzeko bitartekoak jarriko dituztela.”*

*“Haur bakoitzak bere historia du. Garrantzitsua da haurrek portaera-eredu bat izatea, eta eredu horretatik abiatuta gatazkei aurre egiteko tresna batzuk zehaztea. Kideen papera –ikasle bitartekaria– helduena baino garrantzitsuagoa da, arlo horretan.”*

*“Jarduteko irizpide aipagarri bat berehalakoa izatea da. Beste irizpide bat, berriz, arazoan sakontzea, ez geratzea arazoaren azalean. Eta azkenik, tratamendu globala eta positiboa.”*



## 5. JASOTAKO PRESTAKUNTZA

Azterketan parte hartu duten ikastetxe **gehienek** egindako prestakuntzan, **bi gai hauek errepikatzen dira**:

- Lankidetzaren eta lankidetzaren lan egiten ikastea.
- Gatazketan bitartekari izatea eta gatazkek konpontzea.

Intereseko gai hauek ere aipatzen dira:

- Adimen emozionala.
- Tutoretza-plana.
- Gaitasunak garatzea.
- Bullyinga.
- Afektibitate- eta sexu-hezkuntza.
- Irakurtzeko gaitasuna hobetzea.
- Balioetan hezteak.

Esandakoaz gain, hainbat ikastetxeek diote prestakuntza familietara zabaltzeko dutela, ikastaro, hitzaldi, mintegi eta abarren bidez, eta horrek prestakuntzaren eraginkortasuna handitzea ekarri duela.

**Ikasleei** dagokienez, bi bide paralelori jarraitu zaie:

- Bide instituzionala: ikasle bitartekaria, ikasle laguntzailea, ikasle tutorea eta abar prestatzera bideratua.
- Tutoretza-lanekin lotutako bidea, helburutzat dituen elkar ezagutzea, bizitzarako trebetasunak eskuratzea, gatazkan konpontzen ikastea...


## 6. ESKOLA CURRICULUMA

Bizikidetzarako curriculumak zenbait mailatan lantzen da:

### 6.1.- TUTORETZA

Tutoreak Bizikidetzaren Planean inplikatzeko arrakastarako adierazle bat da; izan ere, bizikidetzaren ikasgeletako eguneroko ekintzan zehazten eta gauzatzen da eta, bereziki, tutorearen esku-hartzean. Horregatik egiten dute ikastetxeek lotura berezia bizikidetzaren eta tutoretza-lanaren artean.

Ikastetxeek tutoretzak planifikatzeko eta gauzatzeko hainbat aukera erakusten dituzte; guztien artean, banakako tutoretza eta taldekako tutoretza nabarmentzen dira.



Zenbait ikastetxek diote tutoretza ez dela mugatu behar araudiak zeregin horretarako ezarritako denborara, eta ikasleen tutoretza lana, bizikidetzagiroan, irakasle guztiei dagokiela.

Tutoretzan lantzen diren gaiei erreparatuta, **bizikidetzara orientatutako curriculum espezifikoa** bat dagoela ikusten dugu:

- Araudiarekin lan egitea.
- Elkar hartzea eta elkar ezagutzea.
- Trebetasun pertsonalak eta sozialak.
- Gatazkak konpontzea.
- Ikasgelako ikasle ordezkariak hautatzea; ikasleek ikastetxean duten parte-hartze instituzionalean esku hartzen dute hautatu horiek, hainbat ikastetxetan.

## 6.2.- METODOLOGIA

Hainbat ikastetxek bizikidetzan lortutako emaitzekin lotzen dute metodologiaren kudeaketa. Aztertzen dute ikasleak nola *engantxatzen* diren eskolako zereginetan, **ikaskuntzetan inplikatzearen** bidez, **motibazioak** eta emaitzekiko **itxaropen baikorrak** bultzatuta. Zereginetan duten inplikazio hori bizikidetzaren hobekuntzan islatzen da zuzenean.


Ikastetxeek azpimarratzen dute garrantzitsua dela bizikidetzan lan egitea ez bilakatzea konpartimentu estanko bat, eta ez mugatzea hainbat jardura egitera, baizik eta ohiko metodologia-eginkizunarekin lotzea. Horrekin lotuta, metodologia aktiboak, lankidetzaren taldeak eta ikastetxe guztiaren inplikazioa duten proiektu orokorrak nabarmentzen dituzte ikastetxe askok.

Ikastetxe batzuk neurri zehatzagoak ere aipatzen dituzte:

- errefortzu-taldeak, zailtasunak dituzten ikasleak atzean ez geratzeko,
- gela-banaketak,
- ziklo hasieran gelak berrantolatzea, etab.

### Zer diote ikastetxeek?

*“Bizikidetzaren curriculum tutoretzarako ekintza-planaren bidez jasotzen da, eta zenbait ardatz lantzen dira: trebetasun pertsonalak, trebetasun sozialak, trebetasun kognitiboak, harrera-plana, herritartasuna. Haur-hezkuntzan, jolas kooperatiboak zeregin garrantzitsua du, ikasleen artean gatazkari aurre hartzea lantzeko, bai eta trebetasun pertsonalak eta sozialak garatzeko ere, ikaskuntza aktiboko pedagogia parte-hartzaile eta ludiko baten bidez.”*



*“Taldeen harreman ona eta kohesioa tutoretza-saioetan eta lan-dinamika kooperatiboetan lantzen da (entzun, zure iritzia eman eta errespetatu). Portaera-ohitura batzuk bilatzen dira, modu bat bilatzen da, bizikidetzan eragin dezaten.”*

*“Prebentzio-lana egiten da tutoretza-saioetan eta premiazkoztat jotzen den bakoitzean. Bada maiz abiarazten den harrera-plana bat ere, komunitatea osatzen duten sektoreak inplikatzeko dituenak.”*

*“Asteko tutoretza-saioan, sortzen diren edo eragotzi nahi diren gatazkak lantzen dira. Horretarako, talde handiko metodologia bat erabiltzen da, bai eta talde txikikoa ere, premiazkoa denean; era berean, banakako jarduerak, soziogramak eta konpromiso-kontratuak erabiltzen dira, tutoreak zuzenduta. Zenbaitetan, gatazkaren arabera, aholkulariak (proiektuko koordinatzailea) esku hartzen du ikasgelan bertan, eta ikastaldearen irakasleen arteko bilerak ere egiten dira, irizpide berak erabiltzeko konpontzen saia daitezela.”*

*“Lotura zuzena dago eskola-arrakastaren eta ikastetxeko bizikidetzaren artean. Horregatik erraztu behar da arrakasta akademikoa, laguntzen, errefortzuen, jarraibide metodologikoen eta abarren bidez.”*

*“Bizikidetzaren eskola arrakastarekin lotuta dago. Bizikidetzaren izanez, ikasi egiten da, eta ona da hitzez adieraztea zer ikasten dudan bizikidetzaren pertsona bakoitzarengandik.”*

### 6.3.- ANTOLAKETA-NEURRIAK

Ikastetxeen antolaketa-faktoreen artean hauek dira bizikidetzarako lagungarriak:

- Taldeen kokapena.
- Taldeak egiterakoan heterogeneotasun-irizpideak erabiltzea.
- Harrera plana.
- Ikasle laguntzaileek ikasle berriaren tutoretza-lanak egitea.
- HBBei behar besteko arreta eskaintzea.
- Ikastetxearen autokontzeptua: eraikinarekiko errespetua, altzariak eta ingurua, akustika, kanpoko irudia...
- Hainbat agentek parte hartzea (Udalak, Ijitoen Ekimenak...) jolasaldietan, autobusean eta abar.



## 7. ABIAN JARRI DENA, GARRANTZITSUENA DENA, KONPLEXUENA DENA.


Bizikidetza-proiektuei esker **aktibatu diren alderdiak** aipatzen hasita, hauek nabarmendu dituzte:

- Ikastetxe gehienek **alderdi hauek** nabarmentzen dituzte, **irakaslearen jarduerarekin, zuzendaritzaren jarduerarekin eta Bizikidetza Planaren koordinazioarekin lotuta**: inplikazioa haztea, hurbiltasuna, konplizitatea, komunikazio handiagoa, funtzionamenduaren eta antolaketaren hobekuntza, ikastetxeko "parte izatearen sentimendu" handiagoa... **Harreman errespetuzkoagoak eta autokontrol handiagokoak** dituztela diote, eta horrek irakasleen arteko giroa hobetzen lagundu duela, eta egunerokoan sortzen diren gatazkez eta tentsioez hitz egiteko aukera erraztu duela. Irakasle-talde egonkor handi bat dagoela diote, elkarrekin harreman ona dutenak, barne-harreman ona dutenak.
- Hainbat ikastetxetan, bizikidetza-proiektua ikastetxeko jarduera guztien ardatza izan da, eta hezkuntza-komunitatearen sektore guztiak inplikatzeko eta parte hartzeko giro orokorra sorrarazi du.

Hauek dira elementurik **garrantzitsuenak**:

- **Bizikidetza positiboan oinarritutako harremanak** ezartzea, **elkarri laguntzeko eta elkar zaintzeko kulturen** oinarrituta. Ikastetxeek alderdi hauekin lotzen dute kultura hori: klima positiboa, harreman pertsonalak hobetzea, partaide sentitzea, konfiantza, irakasleek ikasleei laguntzea, elkarriketa, elkar ulertzea, adostasuna, malgutasuna eta inplikazioa.
- **Planteamendu praktikoa, zehatz, errealista eta egingarriak egitea**. Egingarria izatea giltzarria da arrakastarako eta partaidetza eta inplikazioa bultzatzeko. Hortaz, bileren dinamikan eta kudeaketan funtsezkoa da zehaztea, alderdi hautemangarriak eta ulergarriak egotea, eta emaitza argiak lortzea, hala nola erabakiak eta ondorio garrantzitsuak... (Gurasoentzako bilera gehiegi ez egitea gomendatzen dute, eta bilerek beti zeregin argi eta zehatz bat izatea, emaitza jakin bat izango duena). **Gehiegizko itxaropenekin kontuz** ibiltzeko esaten digute, eta **ez hartzeko etsirik hasieran aldatetarik ikusten ez bada**. Koordinatzaileak ongi ezagutu behar du proiektua, ongi ezagutu behar ditu helburuak, eta ideiak argi izan behar ditu, proiektua errazago antolatu ahal izateko.
- Programaren arrakastarako beste gakoetako bat **helburuen garapenean iraunkorrak** edo tematiak izatea da. Horrekin lotuta, proiektuko koordinatzaileak eta/edo ikastetxeko zuzendaritzak zenbait urtez jarraitzeak erraztu egiten du alderdi hori, haien ustez.


Garatzeko **zailenak**, berriz, alderdi hauek izan dira:



- ***Bizikidetzaren kudeaketa zehatza:*** bizikidetza hori ikasleekin, jantokiko monitoreekin, irakasleekin eta abar eskola-orduetan antolatzen zenbait tarte izatea.
- ***Adostasunak eta akordioak lortzeko zailtasuna,*** eta horrekin batera, elkarrekin aurrera egitea lortzea, ***guzti-guztiak onartzeko moduko erritmo pausatuan joatea.***

Ikastetxe batzuek, berriz, alderdi hauek aipatu dituzte:

- Jarrerak aldatu behar dira.
- Bizikidetza curriculumean txertatzea.
- Jantokiaren inguruko egoerak.
- Proiektuak elkarrekin behar bezala integratuta ez egotea.
- Gidako zenbait tresna oso egokiak ez izatea.
- Familiak inplikatzeko zailtasuna.



## ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Azkenik, azpimarratu nahi dugu azterketa honen bidez lortutako emaitzak bat datozela esparru honetan orain arte egindako hezkuntza-ikerketekin.

Hona hemen zenbait adibide:

- “Argiak eta elkarrekin definituak diren arau eta xede batzuekiko konpromisoari” garrantzia ematea da ikastetxe eraginkorren hamar ezaugarrietako bat, ELGaren nazioarteko txostenaren arabera (1991), eta ezaugarri hori bera aztertu dute zenbait hezkuntza-ikerketak ere (Sammons eta beste batzuk –1995–, A. Marchesik eta E. Martín-ek aipatua –1998–). Ikuspegi praktikotik ere, hainbat bizikidetzaren proiektu saiatu dira ikastetxeko eta ikasgelako araudia ikasleen eta irakasleen konpromiso aktiboan oinarrituta egoteko formulak bilatzen.
- Bestalde, zenbait ikerketa (Campo, A. 2002; Sammons, P. eta beste batzuk, 1995; Brunet, L., 1987) eta esperientziak egiaztatzen dute garrantzitsua dela hezkuntza-komunitatearen jarduteak koherenteak/sendoak izatea, batez ere irakasleei dagokienez.

Esan beharra dago familien inplikazioa eta babesaren garrantzi handiko faktoretzat jotzen dela ikastetxe eraginkorretan (ELGaren nazioarteko Txostena, 1991). Horrez gain, Tutthar-ek eta beste batzuek bigarren hezkuntzako ikastetxeetan egindako azterketak (1979) dio ikasleen inplikazioa dela haien eraginkortasunarekin lotutako zazpi faktoreetako bat. Ikastetxeko estamentuen artean sortzen diren harremanak eta harreman horiek hobetzeko sistematikoki lan egitea giltzarriak dira bizikidetzarako. Bai hezkuntza-ikerketak bai hainbat bizikidetzaren proiektuen esperientziak azpimarratu dituzte alderdi horiek. Besteak beste Fernández, I. (1998, 1998, 2001) eta Ortega R. (1998, 2000) autoreek, Herriaren Defentsariak eskola-indarkeriari buruz egindako txostenak (2000), ISEI-IVEIren ikerketak (Bizikidetzaren bigarren hezkuntzako ikastetxeetan: hainbat kasuren azterketa, 2004), Arartekoaren ikerketak (Bizikidetzaren eta gatazkak ikastetxeetan, 2006) eta beste hainbat ikerketak, baita Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak Bizikidetzari buruz 2001ean antolatutako kongresuko idazkiek ere, adierazten digute zenbaterainoko sentikorra den gizartearen gai honekin, eta zenbaterainoko arreta eskaintzen dioten gai honi hezkuntza osatzen duten sektore guztiek.

Eskola-eraginkortasunerako faktoreen zerrenda (F.J. Murillo, 2008)	<i>Onerako nabarmentzen diren ikastetxeak (Norman Henchey, 2001)</i>
a) Ikastetxeko zuzendaritza: Ikastetxearekiko konpromisoa / Kide anitzeko zuzendaritza / Gidaritza pedagogikoa / Parte hartzea eta inplikazioa sustatzen duen zuzendaritza	Bigarren hezkuntzaren zeregina bereziki garrantzitsua da diru-sarrerara txikiak dituzten inguruetatik datozen ikasleentzat.  Egoera jakinei buruz egindako ikerketek egiaztatu dute murriztu egin daitezkeela desberdintasun sozialak, itxaropenetan eta laguntzarako nahiz zerbitzueterako egituretan indarra jarrita.
b) Komunitate-zentzua: ikastetxea eraginkorra izan dadin, misioa argi izan behar du, eta ikasle	



<p>guztien ikasketa integrala lortzen jarri behar du arreta, ezagutzen eta baloreen ikasketa lortzen.</p> <p>c) Ikastetxeko eta ikasgelako giroa: eskola-komunitateko kideen artean harreman ona izatea giltzarria da eta zuzenean lotuta dago eskola-eraginkortasunarekin.</p> <p>d) Kalitate handiko curriculum: eskolak behar bezala eta garaiz prestatzen dira / ikasgaiak argiak eta ongi egituratuak dira / arreta jartzen da ikasleen aniztasunean / era askotako jarduerak eta baliabide didaktikoak erabiltzen dira.</p> <p>e) Denbora kudeatzea: ikasketamaila zuzenean lotuta dago ikasleak ikasketa-jardueretan zuzenean inplikaturik ematen duen denborarekin. Eskola-egunaren kopurua, eskolak garaiz hastea eta eskola-orduen optimizazioa nabarmentzen dira.</p> <p>f) Instalazioak eta baliabideak: faktore hau funtsezkoa da baliabide gutxi horietan, eta argi erakusten du gutxienezko instalazio eta baliabide batzuk behar direla. Era berean, garrantzitsua da eskura dauden baliabideak erabiltzea.</p> <p>g) Itxaropen handia: irakasleek ikasleengan dutena.</p> <p>h) Irakaslearen garapen profesionala.</p>	<p>Haien arrakastarako elementuak eta ikerketei buruzko literaturan ageri direnak antzekoak dira: ordena- eta segurtasun-giro positiboa; gidaritza aktiboa; irakasleen arteko lankidetzaren; programetarako eta zerbitzuetarako laguntzak; ikasle guztien errendimenduaren, portaeraren eta emaitzen itxaropen handiak; hezitzaileen eta ikasleen arteko harreman pertsonal goxoak; eta ikasteko aukeren eta baliabideen sorta zabala, guztientzat. Badirudi ikastetxeak kili-kolo geratzen direla elementu horietako bat falta bada edo mehatxatuta badago.</p> <p>Ikastetxe horien eraginkortasunaren adierazle esanguratsu bat da zenbateraino diren gai: ikasleak motibatuzko, bezero berriak erakartzeko asmoz zerbitzuak eta programak egokitzeko, ikasketa-inguruetarako sarbide segurua eskaintzeko, testuinguruaren eta hezkuntza-komunitatearen arteko lotura egiteko, eta aniztasun guztiarekin harmonia sortzeko.</p> <p>Badirudi ikastetxe hauetako hezitzaileek zenbait gaitasun berezi izan behar dituztela. Hezitzaileek beren gain hartzen dituzte familien heziketaren eremuko zenbait erantzukizun, ikasleengan bai emozionalki bai intelektualki iristeko ahalegin bereziak egiten dituzte, eta irudimen handiz jokatzen dute, ikasketarako edukiak eta ikuspuntuak hautatzean.</p> <p>Itxaropen handiak, laguntza eta harreman goxoak bereziki eraginkorrak dira arrisku handiko egoeretan dauden biztanleria duten ikastetxeetan. Ikasle horiekin, ikastetxeak desberdin jokatzen du, nabarmen.</p>
---	---